

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroek esperientzia berriak bizi nahi duten pertsonak dira, diru nahikoa izan beharko dute, eskaintzen duguna garestia da eta.

Bezero potentzialen ezaugarri nagusiak honakoak izango dira:

- Bezero kopuru gehiena **jende gaztea** izango da, nagusi gehienei ez zaielako gustatzen grabitaterik gabeko zonalde batean egotea edo jatea.
- Beste alde batetik, **esperientzia berriak gustoko dituzten pertsonak** izango dira, abenturazaleak eta ausartak.
- Gehienek autoz etorriko dira gure jatetxera, ibilbide azkarrena delako Artea merkataritza-gunera heltzeko. Beraz **geografikoki** bertaratuko diren pertsonak ez dira mugatzen Uribe Kostara. Esperientzia bakarra denez, inguruko probintzietetik etortzea ere aurreikusten dugu.
- **Irizpide ekonomikoari** dagokionez, esperientzia honen kostua nahiko garestia da, 150€/ko prezioa baitu. Honek bezero segmentua ere mugatzen du.
- Osasun irizpidea ere kontutan izan behar da bezeroak identifikaztean, **osasun egoera onean** egin behar diren pertsonak izan behar dira, bestela grabitate gabeko egoeran ezingo lirarteke sartu.

